

IRITZIA AMAIA LARIZ · ASTEKO NOTIZIA LEIRE URKIDI
KIROL ELKARRIZKETA MARTINEZ, LEIZARPE ESPELEOLOGI TALDEKO PARTAIDEA

BARREREN

ASTEKARIA



GEHIGARRI BEREZIA
EZKONTZAK

“Izarraitzko haitzuloak”
Kultur Etxean

LUZARDE

**KAFFETEGIA
JATETXEA**

Ospitale parean

Mendarozabal, z/g

Tel: 943 75 51 44175 61 66

MENDARO



• Ezkontzak

• Jaunartzeak

• Bataioak

• Banketeak

• Enpresentzako

jatorduak

• Urtebetetzeak

• Despedidak

NUMIDIA

Kontzertua

Martxoaren 30ean
gaueko 10:30ean

HERRIKO ANTZOKIAN



Foru Itldundia



Euskara eta Kultura
Sailak

Kantaldirako sarrerak aurrez eros daitezke Kultur Etxean. Nafarroa Plaza 3. Tel. 943 /42 158/ 943 744 366.
Goizez 7:00etatik 15:00etara. Prezioa 800 pta.



Guggenheim Armaniz jantzita

Mende laurdena igaro da Giorgio Armani jostun italiarrak bere firma sortu zuenetik. Lehenengo urteetan traje arinek egin zuten ospetsu, gizonentzat zein emakumeentzat diseinatu zituen. Iraultzailea izan zen, emakumeei estilo androginoa ezarri zien, konfortean, furtzionalitatean eta askatasunean oinarrituta. "Unisex" hitzak definitzen du 80. hamarkadako Armani "look"-a.

Baina ez da Bilboko Guggenheim Museoa bihartik aurrera ikusiko dugun bakarra izango. Erakusketak Armanik azken hogeita bost urtetan egindako lana jasotzen du.

Giorgio Armani, Coco Chanel eta Yves St. Laurent diseinatzaileekin batera, XX. mendeko janzkeran gehien eragin duen jostunetarikoa bat omen da. Baina diseinatzaileaz gain, enpresariak piskanaka-piskanaka bere izena handitu du. Zineaz era egokian baliatu da, "American Gigolo" (1980) filmean Richard Gerearen jantziak Armanik diseinatu zituen. Hori hasiera besterik ez zen izan. Urtebete geroago, zinearekin eta aktore handiekin harreman estuagoa lortzeko **asmoz**, Lee Radziwill, Jaqueline Kennedyren ahizpa, kontratatu zuen jai bereziatarako koordinatzaile bezala. "Oscar" gauak ohiko bihurtu dira Armanirentzat. Hori guztia moda ote?

Leire Urkidi



Sutan kiskalitako liburutegia

Harritzen gaituenari buruz pentsatzen dugu normalean. Urteen joanak babesten dituen ideiak ez gaitu harritzen eta beti hori pentsatu izanak kritikarako gaitasuna ezeztatzen digu. Adinekoek gizartean betetzen duten rola da horietako uste bat. Hortaz, hona hemen erreflexio txiki bat.

Oro har, zaharra "lehenago izandakoa" eta gaur garrantzi askorik gabekoa dela pentsatzen dugu, eta gainera, horren arrazoia adina dela. **Hau** ez da benetako egia. Gu geu eta gure kultura gara adinekoari tristetasun edo bizimodu deprimitu hori egozten diogunak, eta ez urteak. Rol hori ezartzen diogu eta adinekoak bete egiten du.

Gizarteak ez du belaunaldi hau behar bezala baloratzen eta horrek gure ezjakintasuna besterik ez du salatzen. Adinekoak gure benetako historia dira-eta, gure herriaren oroitzapen bizia, eta haien hizkeran dago benetako jatorriasun eta naturaltasuna. Gogora dezagun ba, ikerlari maliar batek esan zuena: "hiltzen den adinekoa sutan kiskalitako liburutegia da".

Amaia Lariz

cf)

O

Z

O

ITIOtZ 1110tZ 6

b 7

kALe inkeSTa 25

kiROlAk 26

aGenda 28

ELGOMARKO HERRIARI

Euskal gizarteak Euskal Herriko sei herrialdeak bilduko dituen hezkuntza sistema propio baten alde egiten duen bitartean, frantziar zein espainiar agintariak aurkako norabidean urratsak emateko borondatea erakusten dute behin eta berriz. Era honetan, frantziar agintariak euskarazko irakaskuntza zokoratzen duten bitartean, espainiar agintariak euskalduntasunaren edozein zantzuren aurka ekiten dute, Humanitateen erreformarako hezkuntza dekretuaren bidez egin duten bezala, Azken dekretu hau gure herriak pairatzen duen ukazioaren hamaikagarren adibidea besterik ez da.

Honen aurrean, euskaldunok geure hezkuntza sistemaren bidean ahaleginak biderkatu behar ditugu, abenduaren 16an Bilboko manifestaldian bildutako jendetzak euskal gizartearen gehiengo bide hori egitearen alde dagoela argi eta garbi azaldu zuen bezala.

Udalbiltzatik euskal hezkuntza sistema baten aldeko apustuarekin bat egiten dugu.

Hau dela eta, Elgoibarko Udalean, Euskal Herri osoko udalerrietan bezala, mozio bat aurkeztu dugu. Bertan, espainiar zein frantziar Gobernuak beraien hezkuntza sistemen legeria ezarri, geure hezkuntza sistema propioa garatzeko eskubidea ukatzen digutela salatzen da eta Udalak euskal hezkuntza sistemaren aldeko aldarrikapena berea egiteaz gain, herritarren artean informazioa eta eztabaida bultzatzeko bitartekoak jarriko dituela hitzartzeko eskaria egiten da.

A.Z.

N.A. 72 575 538

APIRILAREN 10EAN GREBARA

Lizarrar-Garaziko akordioa sinatu zenetik Espainiako estatuak gure herriaren aurkako erasoari ekin zion. Ordutik gertaera tamalgarrri asko pasa dira: HBko mahai nazionala kartzelaratu, "Egin" itxi, "Xaki"ri eraso, "Ekin", Zumalabe Fundazioa, desobediencia zibila, AEK, euskal liburugintza, hezkuntzako programazioak, ikastolak nahiz ikastetxe publikoak... Denen kontra egin dute, D eredu kendu nahian, euskararen erabilpena murriztu nahian eta errepedietako kartelak ere aldatu nahian dabilta. Azkena Haikaren aurkako eraso izan da eta EHren aurkako erasoen zai gaude, jadanik Otegiren atzetik hasi dira.

Euskal Presoak inoiz baino sakabanatuago. PPK eta PSOEk Euskal Herriaren eraikuntza nazionalaren aurkako pakto poliziala sinatu dute "Estado de Excepción" hori Ilegeztatuz. Edozein arrazoiengatik atxilotuak izan gaitzke, Mendi orain dela urte erdi bezala. Hau guztia komunikabide guztien laguntzaz, abertzaleak egunero irainduz eta mehatxatuz.

2001. urtean, hiru hilabetetan 150 atxilotu izan dira, 58 gaztek tratu txarrak eta torturak salatu dituzte, Melitón Manzanos torturatzailerak kondekoratua izan da, torturatzailerak eta GAL-ekoak, sententzia zehatzak izan arren, kalean daude, Aznar faxista astero dator Euskadira bere doberman Mayor Orejarekin, konstituzioa gainditzen inoiz ez digutela utziko esanaz, kanpainan egitera.

Arrazoi hauekin nahikoa dut apirilaren 10ean greba deialdiarekin bat egiteko. Gure burujabetsunaren alde, herri bezala gure iraupena jokoan dagoelako.

Iñaki Odriozola
NAN 15364490

Urruzunoren begi izkutua



Inkomunikaziva,
In komun...kaos, In
komun, in kaso!,
Inkomuninkaosa,
Komunikazioa, komun...ik?
Forma, informa,

informatiza, desinformatizatu. Komunika, inkomunika, deskomunikatu. Hamaika liburu, makina bat aldizkari, bideo eta soinudun mezu. Milaka web, telefono, irratia eta tramankulu. Ta zenbat elgoibartar inkomunikatu? Pertsonen arteko komunikaziva zer dan jakin barik, noraezian galdurik? Isolaziotik zela irten jakin ezinik?

P.D: Atzo gaztetxian mus txapelketia egon zan. Datorren astian, Elgetako Gaztetxiak antolatua daban eztabaidara gonbidatu gaitu: Zer da Gaztetxia? Juatia ahal badot, juango naiz. Nahi badozue, bertan berba eitten dana komentatuko dizuet. Usurbilen egongo danan gainian informaziva ez badaukazue, e-maila bidali. Gauza majo majuak egongo diazelako, ta antolaketa prozesu "polit-gogorra" izan dabalako.

Amaia Urzelai

RIA

BARRE ASTEKA

Nafarroa enparardza, 2
20870 ELGOIBAR
ts 943 74 41 12
Publizitatea:
xn 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Heibide informatikoa:
[vavstopagunea.com/barren](http://www.vavstopagunea.com/barren)
ARGITATZAILEA
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILERAK Elgoiarka Udale ZUMIDIARIA Eli
Aizpuru KAUTARIAK Irati Agirreazalegi, Asfrer
Orbea PUBLIZITATEA Andoitz Agirregomezkorta
MAXETATZALEA Bea Ansoa ADAIISTRATUA Amaia
Rodríguez GERELOZIA Rafa Alvarez, M, Angeles
Ortuoste KOLABORATZAILERAK Amata Lanz, Unai
Argarate, Eguzleite Aranberri, Lorea Perez de
Albeatz, Joka Marknez, Aitor Zebalela, Leire
Urki, Olga Unzilla, Montse ArregJuanito
Eicgostiza, Iker Maguregi, JQn Gurrubaga, Jon
Eugui, Ainhoa Andonegi, Kokoe KE. eta Urrunuo
L.T., AEALEICO ESALJIRA Goizon Garateren liburuk
INPRIALESGIA GetuKoop. E. TIRADA 4.000 ale LEGE
GOADAILUA S5-1.0381921555 1139-1855

Ef ELGOCIARIO IZA101
1111,112. -----

Eigoibarko Udalak, Eusko Jaurritzak Kultura Sailak
eta Foru Aldundiak diruz lagundurako aldizkaria.



1DANOBAT
al10W.1111EPRA111.11

GRUPD 014011/111

Okerrak zuzentzen

Pasa den asteko BARREn, "nola aldatu diren lekuak!" atalean, Aiziaraganeko Palazioa zegoen lekuari erretratua atera beharrean beste etxebizitza bloke bati atera genion. Guk ateratako argazkian beste jauregi bat zegoen baina ez Aiziaraganekoa. Beraz, okerra zuzendu beharrean gaude.

- Emakume batek deitu digu **larunbatetan zine entanaldietan** egoten den **giro txarra** salatuzko: "Udalak "ikuslearen eguna" kendu zuen neurri bezala, baina hala ere Iotsagarria da; umeez barrezka edo txaloak jotzen pasatzen dituzte emanaldiko orduak. Zinean pakean eta gustura egotea ere gauza ederra da. Nire ustez norbait gehiago ipini beharko litzateke horrelako jendea zaintzeko eta ixilik egoten ez dena, kalera bidaltzeko. Elgoibarren gertatzen dena ez dut inon ikusi".



TY1d0111

- Elgoibarko Institututik "Bosko **Eguna**" antolatzen lagundu zieten **guztiak txalotu** nahi dituzte: "Agerre baserrikoei, Gurutze Gorrikoei, Udal Patronatuari, udaletxeko langileei eta "Azkena" dantzalekuko lagunei gure eskerrik beroena luzatu bahi diegu", esan digute.

a|oleo banintz

Eigoibarren bada zer hobetua!



Erretiroa hartuta dagoen jendeak oso soldata bajuak eta dirulaguntza txi jasotzen ditu. Beraz, alkatea

banintz laguntza ekonomikoak emango nizkieke jubilatuei. Izan ere, hain pentsio eskasarekin etxe bat mantentzea zalla da, oso diru gutxi jasotzen baitute. Jubilatuen pentsioak Gobernuak arautzen baditu ere, herrietan, Udaletik abiatuta, erretiratuena egoera hobetzen saiatu beharko lirateke. Bailarako beste herri batzuetan gai honen inguruan egiten diren gauzen berri badaukat eta Udaletik laguntza gehiago ematen direla ikusi dut. Beraz, Elgoibar ez litzateke gutxiago izan behar.

GLORIA DIAZ
Etxekoandrea

Barreak, Birrak eta Barreak



©KOCOE 2001 137

Publidtate errotuluak euskaraz jarleagatil dindaguntzak emango tritu Udalak

Elgoibarko Udalak errotuluaren kostuaren %30eko dirulaguntza emango dio bere deudan euskaraz hutsean idatzitako errotulua jartzen duen herritarri. Euskaraz ondo idatzita dagoela Udaleko Euskaraz Zerbitzuak ziurtatu beharko du. Dendariek zalantzarik izanez gero, edo laguntza behar badute Euskaraz Zerbitzura jo dezakete (943 74 43 66-Kultur Etxeko lehen pisuan)

Apirilaren 2ra arteko epea dago hauteskunde errolden inguruko erreldamañoak aurkezteko

Datorren maiatzaren 13ko hauteskunde autonomikoak direla-eta, martxoaren 26tik apirilaren 2ra bitartean hauteskunde errolda jendaurrean izango dela jakinarazi nahi zaie herritarrei. Zerrendak goizez 9:00etatik 13:00etara ikusi ahal izango dira udaletxeko idazkaritzan eta arratsaldean udaltzaingoan 16:00etatik 18:00etara, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

ONCEko loterak 50 milioiko saria ekarri du Eigoibarrera

Joan den astearteko ONCE loteriaren zozketan 44.691 zenbakia izan zen saritua. Elgoibarren, Madalako parkean dagoen ONCEko kabinan, Ma Dolores Trigerosek zenbaki horretako 10 kupoi saldu zituen. Kupoi bakoitzak 5 milioi pezetako saria jasoko du, beraz, guztira 50 milioi banatuko ditu ONCEk herrian. Zorionak bada zortedunei.



Konzentrazio jendetsuak izan dira aste honetan Rosasko eta Lasarteko atentatuen aurka protestatzeko

Joan den larunbatean Rosasen (Katalunia) bonba autoz hil zuten Santos Santamaria polizia judiziala; eta asteartean, berriz, Lasarten tiroz PSEko zinegotzia, Froilan Elespe. Bi hilketak hauen aurka protestatzeko eta kaltetuei elkartzasuna adierazteko konzentrazio isilak egin ziren igandean, astelehenean eta asteazkenean Plazan. Jai eguna izanik, igandeko agerraldian Plazan bildutakoak gubd izan ziren, asteleheneko eta asteazkeneko deialdiei, berriz, jende ugari erantzun zien. Ordu laurdeneko agerraldi isilak egin zituzten, horrelako ekintzak gertatzen diren guztietan egin ohi duten moduan.



Ikasie ingelesak OARMINen izan ziren bisitan osUralean

Elgoihar ez da kostako herria eta turismoa ez onten du horrenbeste erakartzen, baina azken aldirian atzenitar asko azaldu da gure artera. Ingalaterrako "Litherland High Schoor-ekoen txanda izan da oraingoan. Ikastolara elkartrukean etorri eta BARRENen bisitan izan genituen joan den ostiralean 14 eta 16 urte arteko 16 ikasle. Martxoaren 24ra bitartean izango dira Elgoibarren. Ostiralean, martxoaren 16an, "Karitatearen Nazioarteko Eguna" omen zen eta beraien herrian ohtura den bezala, edun horretan dinta biltzeko erabiltzen dituzten sudur gorriekin ateratu zuten argazkia.



NOLA OSPATU <O DUGU2

g PITSI DA 'B• NAHIDUT" ESATEK(,JNA HITZ
 WRREZ, BAINA ZINEZ ADIERAZ ._.) DUTE
 EZKONGAIEK ELKARREKIKO MAITASUNA SOINEKOA
 GONBIDATUAK, LORAK BAZKARIA BURUHAUSTEAK.
 ' qO BATERA UTZ TA HELDU DA POZTASUNA.
 ,_"KONGAI ZATE < EZKONBERRI IZATERAKO PAUSC/
 EMAN ETA BIERA 'I1E < ADIERAZIKO DUTE
 . " MENDIK AURP' - r-3IEN ARTEKO ERARTASUNA,
 /ORIONTA` 1ir ,',, w1I ,1 DA, EGUN HANDIA. HELDU
 HELDU, LLKONI . - , ONA.



Ezkontzeko R A < I A



ARRAUTZAK SANTA KLARARA

Arrautzak jaiotzearen edota zoritxarrak urruntzearen adierazle dira. Horrez gain, egun berezi horretan, Santa klarara arrautzak eramaten dira eguraldi ona eskatzeko.

EZKONTZEKO ERABAKIA HARTU AL DUZU? HORRELA BADA, ZORIONAK! DATOZEN HILABETEA EMOZIOZ BETAIAK IZANGO DIRA, BAINA ERA BEREAN BAITA KAOTIKOAK ERE. GAUZAK LASAI HARTU ETA GOGORATU BODAREN PRESTAKETA ESPERIENTZIA POLITA IZAN BEHAR DELA, EZKONTZA EGUNA BEZALAXE. EGUN HORRETARAKO DENA PREST IZAN DEZAZUN HAINBAT ARGIBIDE ETA HELBIDE INTERESGARRI EMANGO DIZKIZUGU.

Ezkontzeko eguna aukeratzea izango da lehen pausoa, gehienak udaberrian edo udazkenean ezkondu ohi dira, eta egunik egokiena larunbata omen da. Data zehaztu ostean lekua hautatu beharko da, eta erreserba egin.

Opari zerrenda eginez gero denda aukeratzea izango da hurrengo pausoa, eta helbidea gonbidapenean bertan jartzea.



2. Ondoren, eztei bazkarirako edo ofarirako jatekoa aukeratu, deitu eta lekua hartu beharko da. Gehienetan jatekoez ezkongaiak bazkaltzera gonbidatu ohi dituzte menua aukeratu dezaten.

■ lekua eta eguna aukeratu eta gero gonbidatuen zerrenda egin, godo dute ezkongaiak, bizi familien adostasunarekin. Ondoren inprimategira jo eta gonbidapen eredu egokia aukerotuta, inprimatzeko eskatu. Gonbidapenetan ezkontzara joan, godo diren ala ez konfirmatzeko eskatu, bazkaitzen zenbat lagun izan, godo zareten jakitea komeni baita.



50 Detalle txikiak izan arren ezkontzako soinekoa eta trajea, eraztunak eta loreak garaiz enkaratzea ezinbestekoa da, kanpoko itxura baita azken finean gehien ikusten dena.



® Eta nola ez, ezkontzaren ondoren eztei-bidaia dator. Bidaia-egentzia gehienetan izaten dituzte ezkonberrientzat bereziki prestatutako bidaiak.



Arnetsetako eguna prest dago, orain baiezkoa ernatea baino ez zaizu falta; eta eguraldi ona egiteal



Joseba
JATETXEA

FLOREAGA Jauregia

IO • AZKOITIA

Tel. 943 85 34 12

*fuskal arkitekturako eratkin naguslenetakoan,
ezkontzak berezia izan behar duelako*



*XVI. mendeko jauregi gotikoa paregabeko paisaia batean,
gaur egungo joerel erreparatzen dien kalitatezko
euskal sukalde klasikoaz gozatzeko aukera ematen duena.*



*250 lagunentzako jantokta,
ospakizun handietarako aproposa.
Bestetik, bi jantoki: 80 lagunentzat bata,
eta bestea erretserbatua, 20 lagunentzat.
Luncherako terraza aproposa.*

LASA JATETXEA



*LASA Jatetxean,
ezkontzaren unea
sekula ahaz ez dezazun
eta zure bizitzako
oroigarri ahaztezina
izan dadin
lan egiten dugu.*

Ozaeta Jauregia • Tel: 943 76 10 55 • Web: restaurantelasa.com • BERGARA



Zatoz oraintxe berritu dugun
300 pertsonentzako bankete aretora

Eska ezazu aurrekontua
inolako konpromisorik gabe
zure ezkontza edo banketerako




.... TELEFONICAREN erru bot dela-eto gure telefono ez do gido berrion agertzen

Sonto Klora, 5 20800 ZARAUTZ - Tel. 943 131 243 - 943 134 095 Faxa: 943 831 680

otzarreta@telefonica.es

A

Gonbidatuei eskainiko diezuen menua, balkaria nahiz afaria izan, oso gurrantlitsua da. Erabakia hortu hehar eta ezin aukeratu. Gehigarrian agertzen diren jatetxekoei beraien menu proposamenak egiteko eskatu diegu. Bertan ogerizen diren preziook gutxi gorabeherakoak dira, arraina edo ardoaren prezioak oso aldakorrak baitira, flona hemen eskaini dugutena:



Iberiar urdaiazpikoa
Ahate foie
Frito bereziak
Almeiak saltsan
Otarrairnskak plantxan
Salda edo itxaski-krema
Legatza labean muselina eta
espinaka kremarekin
Solomoa onddo saftsarekin

Eztei tarta izozkiekin

Kafea eta kopak
Ardoa eta kaba

8.000 pta + B.E.Z

iabugo urdaiazpikoa
Ahate foie
2 langostino egozi
5 langostino plantxan
Kroketak, rabak eta ganbak
ligabardind erara
Txangurroa
Txirlak
Kokotxak saltsan
Salda edo itxaski-krema
Arraina
Azpizuna goarnizioarekin
Eztei tarta izozkiekin
Kafea eta kopa
Ardoa, ura, freskagarriak,
9.000 pta+ %7 B.E.Z

Iberiar urdaiazpikoa
Abakonclo salpikoa
Fritoak
Txipiroiak plantxan
kokotxak saltsan
Zigaiak plantxan (200gr.1
Salda edo ixaski-krema
Legatza labean muselina saitsarekin
Solomoa onddo saftsarekin
Eztei tarta izozkiekin
Kafea eta kopak
Ardoa eta kaba
9.500 pta + B.E.Z

Sonta Ana, 44 • Telf.-Fax: 943 74 44 51 • Apdo. 208 • e-mail: nava(iveuskalnet.net • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

**Ezkontza
Gonbidapenak**

(oc) 11'510e1 OLSOZ. • lou louilx.,snetapAon :llow-e • gLLz, •IDIDdv • 19 bb PL f:P6 :x°1'1e1 • Vt' mue mos



toz.014 iPivzipz,44, 24

20730 LOIOLA-AZPEITIA

Tel. 943 81 56 08
Faxa: 943 15 03 65

GEH1GARRI BEREZIA

ERRAMUA EGITEKO AUKERATUKO DITUZUN LOREEK SOINEKOAREKIN ETA ELIZKIZUNERAKO AUKERATUTAKO LOREEKIN BAT ETORRI BEHAR DUTE. ERRAMUA AUKERATZEKO ORDUAN, KONTUAN HARTU LORE MOTA BAKOITZAK BERE ESANAHIA DUELA. HONA HEMEN "PISTA" TXIKI BATZUK. GERO, AZKENEKO HITZA ZEUREA DA. KONBINAZIO UGARI EGIN DAITEZKE. HALA ERE, ADITUEN AHOLKUAK JARRAITZEA GOMENDATZEN DIZUGU.



ARROSA

Arrosa gorriek pasioa adierazten dute. Zuriak, garbitasunaren adierazgarri dira eta horiek, fideltasun falta esan nahi dute. Beraz, azken hauek ez dira emaztegaien erramuetarako aproposak.



MARGARITA

Lore honek amodioa erakarri, tristura urrundu eta sexu grina areagotzen du.



KRABELINA

Berpizkunde garaian fideltasunaren eta inozentziaren adierazgarri ziren. Kristautasunak dionez, krabelinak Jesus jaio zen egun berean jaio omen ziren eta maitasunaren eta garbitasunaren sinbolo bihurtu dira. Zuriak eta arrosek pakea eta harmonia esan nahi dute.

TULIPA

Persiako kondairak dionez, Ferhard gaztearen maitalea bidaia batera joan omen zen. Ferhard basamortura irten zen bere bila, baina ez omen zen gehiago itzuli. Negarrez hasi eta isuritako malkoak tulipa gorri bihurtu ziren. Horregatik, Arabiako tradizioan, tulipa bat oparitzea maitasunaren adierazgarri da.



ORKIDEOA

Alemaniko mitologian eman-kortasuna eta perfekzioa adierazten dute. Hala ere, eman zaien erabileragatik sexualitatearekin lotu ohi dira.



LIRIOA

Garbitasunaren eta inozentziaren seinale dira.



Dmpif'e_vx-i-ct

DISEINUA - FOTOKONPOSIZIOA - ETIKETAK, KARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK - TIPOGRAFIA - OFFSET

Trenbide, 13 behea • Tel: 943 74 01 87 • Faxe: 943 74 27 40



DEBAPE
INPRIMATEGIA

komunikazio grafikoa

• DISEINU GRAFIKOA • OFFSET LITOGRAFIA • FOTOKONPOSTZIOA
• PUBLIZITATE DISEINUA • ERA GUZTIETAKO IRAGARKI KOMERTZIALAK

EZKONTZA EGUNEAN ELKARRI ERAZTUNAK JARRI ETA BAIEZKOA
 ESANDAKOAN, ELKARBIZITZARAKO PAUSO BERRI BAT EMATEN DA.
 BAINA EZKONBERRIAK ETXE BATEAN ELKARREKIN BIZITZEKO
 AURREZ DENA PREST IZAN BEHAR DUTE, HASI ETXEKO TRESNA
 ELEKTRIKOETATIK ETA OHEKO ARROPETATIK IGAROZ,
 XEHETASUNIK TXIKIENETARA NELDU ARTE.



ARAMBURU

San Frantzisko, 26 • Tel. 943 74 25 35



LEIZABE

San Bartolome, 8
 Tel. 943 74 13 37

GORRINO



San Bartolome, 21 • Tel. 943 74 01 91

AKANDALQ



. 943 74 35 95

LEIGAR



Kala
 LORADENDA



San Bartolome, 10 eskuma
 Tel. 943 744 516

ASTIGARRAGA



LORADENDA
 Jausoro plaza, z/g
 Tel. 943 744 386

SOINEKOA AUKERATZEA EZ DA GAUZA ERRAZA. GUK EZ DIZUGU
 NOLAKOA EROSI BEHAR DUZUN ESANGO BAINA AUKERAKETA
 EGITERAKOAN BALIOKO DIZUTEN GOMENDIOAK EMANGO DIZKIZUGU.



...BAZARA	KOMENI ZAIZU...	EZ ZAIZU KOMENI...
Lodia	Soineko sinplea, "imperio" erako kortea edo soineko "rektoa", dotorea, tela harro eta sollearekin	Gerrikorik edo lazorik gerrif Behean adornurik.
Bularra, gerria eta aldaka proportzio berdinekoak	"Buelo" handiko gonak, maila desberdinetan moztuak edota printzesa erakoak. Manga estuak, gerria estutzen duen "korpiño" horietakoa edota "imperio" kortea	
Bular eta aldaka nabarmenak, eta gerria estua	Formak nabarmentzeko, soineko estua eta formak disimufatu nahiz gero, korte zuzena duen soinekoa	Pikuan amaitzen den eskoterik, bularra nabarmentzen da-eta.
Aldaka zabalekoa eta bular gutxikoa	Goialdean adornuak eta gona sinplea dutenak. Bularrean kruzatutako bandekin, "barco" erako eskotea, fruntzitu askorekin edo bizkarrean eskote handiarekin	
Bizkar zabalekoa, bular handiekin ato aldaka estukoa	Gaineko sinpfea eta gona harroa; beso estudunak; gerrian U edo V erako kortearekin. Eskote karratua, bularra disimulatu nahi izanez gero. Bestela, pikoan amaitzen den eskotea	"Palabra de honor" erako eskoterik, bularra disimula nahi baduzu behintzat.



**30 URTEKO
 ESPERIENTZIA**

NOVIAS GABIÑA

*Emaztegai eta amabitxientzako jantziak
 Osagarriak
 Neurrira eginiko jantziak*



Automia, 34
 48010 BILBO
 Te1. 944 448 934

Dannis DOWFIS

Emaztegai, Amabitxi, Jaunartze eta Ospakizun Bereziak



In s Sainz, Miss España 1997

DANAIS NOVIASEk bere denda bisitatzera gonbidatzen zaitu
2001eko emaztegai eta ospakizunetarako kolekzio onenak aukeratu ditugu.
Beste ekintza sozialetarako ere punta-puntako diseinuak aurkituko dituzu.

BILBOKO ERD1GUNEAN • Corte Ingl4setik 150 metrotara

Buenos Aires, 7 • 48001 Bilbo • Tel. 944 231 586

**ERAZTUNA,
ZERGATIK BETI HATZ
BERDINEAN?**

Eraztuna beti eraztun-hatzean ipintzeak bere esanahia du. Ainizinan, hatz horretatik bihotzera zuzenean zaina zihoala pentsatzen zuten.

FIDELA AL DA?

Begira ezazu ea mutilak gorbata zuzen daraman. Gorbata okerrak ez zaizula fidela izango esan nahi baitu.

PERLAK...

Ez ezazu perlarik jantzi. Perlak malkonk adierazten dituzte eta horrela eginez gero, ezkonduetako urteetan negar asko egingo duzu.



Senargai, aitabitxi eta gonbidatuentzat trajeak

Trajeak neurrira egiteko aukera eskaintzen dugu

Zure gorputz eta ideietara egokitzen dugu trajea

**r Saimenta: •Arragbata, 3
Erakusketa: Arikbaneko, 1
Tel. 943 207 417 20600 EI**



kludagil

JANTZIDENDA

*Horren berezia den egun baterako,
zatoz gurera*

111 11-11 11 ■ ■

Senargaiak eta
ezkontzako gonbidatuak
j antzen adituak



Zuioa•as, Tel. 943 20 22 33 • EIBAR





CORTE BLANCO

senargaiak

*Senargaiak,
aitabitxiak, amabitxiak
eta gonbidatuak*

TAILA HANDIAK, ara arte. LUZEERA BEREZIAK.

*GIZONEZKOA • Triunfo, 3
EMAKUMEZKOA • San Martin, 50
TALLISIMA • Easo, 3*

DONOSTIA Tel. 943 46 40 91



**Ospakizun berezietarako
jantzirik egokienak dauzkagu.
Zatoz, dotore janzten
lagunduko zaitugu**

Zubiaurre, 30 • ERMUA « Tel. 943 17 01 80

JOSTUNDEGIA

Gutiérrez



RGINTZA

EZKONTZA EGUNA HAIN BEREZIA IZANIK INOIZ BAINO EDERRAGO EGON NAHI IZATEN DU EMATZTEGAIK EGUN HORRETAN. ADITUENGANA JOTZEA DA BIDERIK ONENA, BAINA BADIRA HA1NBAT TRUKO POLIT-POLIT EGOTEKO. HONA HEMEN EZKONTZA EGUNA BAINO LEHEN JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK:

BI HILABETE LEHENAGO

I **Ile** tratamendua: [ndartzeko eta distira emateko maskarilak.

> Aurpegi garbiketa eta azala hidratatzeko tratamendua.

I Dieta zaindu: barazkiak jan, ura edan eta grasa gutxi kontsumitu.

ASTEBETE LEHENAGO

> Ileari kolorea: tinteak, metxak...

► Gorputzeko "peeling"-a: besoak eta bularraldea nabarmendu.

I Manikura eta "peeling"-a eskuetan: azazkalei forma eman. Ezkontza egunerako manikura frantsesa edo esmalte argiak dira egokienak.

EZKONTZA EGUNEAN

I Gorputzeko masajea.

Pedikura.

ORRAZKERA

Gutxienez orrazkera proba bat egi-tea komeni da. Izaerarekin eta soinekoarekin bat datorren orrazkera eraman behar da.

I Soinekoa eskotatua bada, ematztegaiak lepo luzea badu edo txikia bada, ilea goian batuta eraman.

I Altueraz garaia bada, eta soineko klasikoa jantzi behar badu, ilea beheko aldean batu.

I Orrazkera beloaren arabera alda daiteke eta klimak ere badu zeresanik: negurako landutako moñoak, udarako, berriz, orrazkera sinpleagoak.



gAR13q E
E DERGINTZ A

Tforren Serezia cfen egun Saterako zugar yentsatzen bazaude,

ZTITO.Z.

GORPUTZ OSOKO TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
AURPEGIRAKO TRATAMENDUAK eta MAKILAJEA
GORPUTZ OSOKO DEPILAZIOAK HOTZ eta BEROAN
SOLARIUMEKO 10 SESIOKO BONOAREKIN SESIO BAT DOAN

1.91 091 £176 -131
YI113dZV OUOZ
9 `09VIINVS

EOZ EtP6 -131
21V1113 0090Z
N3212IVIVDVOInz

VID3CINIVdV311

Zia VNI Pal

nannez onnleyfiolie

ela ZOIRZ



AZALC-11

ectelsin+za

Trenbide kalea, 3
Tel. 943 74 03 10



ileapaindegia

San Inozio, 4 • Tei: 943 74 27 25

JOSE ANTONIO
ILEAPAINDEGIA

Errosario, 30 • Tel: 943 74 14 92

ELENA

ileapaindegia
depilazio elektronikoa

San Frantzisko, 49-1 • Tel: 943 74 11 89

IDAMA

LEAPAINDEGIA

Santa Ana, 7 • Tel: 943 74 40 26

zu zarc garrantzitsuena



Pedro Muguruza,13
Tel. 943 74 43 88


A F-11
ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 14 •
Tel. 943 75 51 01 **MENDAR**

rrtelgu"s

ileapaindegia-Edergintza

San Roke, behean
Tel, 943 74 34 91



rimak

ILEAPAINDEGIA

Kalamua, 2 • Tel: 943 74 43 57

ileapaindegia
Solariuma

Errosario, 9-1 • Tel. 943 74 44 89

Sidney

ILEAPAINDEGIA

San Frantzisko, 26-1 • Tel: 943 74 09 51

E~tria

San Frantzisko, 49 1 esk.
Tel: 943 74 43 03

XABIER
ILEAPAINDEGIA

San Bartolome, 13 • Tel: 943 74 19 973

OPARI ZERR-degiNDA

EZKONTZAKO EGUNA ERABAKITZEN NAHIKOA LAN IZAN ZENUTEN, BAZKARIRAKO LEKUA AUKERATZEAK EMAN ZIZKIZUEN BURUHAUSTEEI BURUZ ZERESANIK EZ. ETXEA ANTOLATZEA, ORDEA, LAN ERRAZA IZANGO DA. EZKONTZA EGUNA BAINO LEHEN OPARI ZERRENDA EGIN BEHARKO DUZUE HORRETARAKO, ETA HONA HEMEN HAINBAT GOMENDIO ZUEN EGINKIZUNAK ARINTZEKO.



► Opari zerrenda gonbidapenak bidali aurretik egin.

1 Zuen gustuekin eta estiloarekin bat datorren denda aukeratu.

> Gonbidatuak leku ezberdinetatik badatoz, dendak hainbat hiritan dituen katea hautatu.

► Etxea ataletan banatu eta bene-

ZAHARRA, BERRIA, ERABILIA ETA URDINA


Ohitura hau erabat sinholikoa da. Zaharrak emaztegaiak bere iraganarekin duen lotura udierazten du. Berria bizimodu berria hasteko duen itxaropena da. Erabilitakoak adiskidetasuna esan nuhi du eta urdinak, fidelotasuna.

tan behar duzuen zer den bion artean erabaki.

> Zerrendan oparien prezioa jarri.

> Opariak baino dirua nahiago baduzue, ez da komeni hori gonbidapenetan jartzea.

> Jasotako opariak eskertzeko eskutitz bat eskuz idatzi eta biok sinatu. Gertukoenei telefonoz ere dei diezaiekezue.



iSTOTAI R T EI
PUBLIZITATEAW
ARGAZKIAK

Santa Klara, 12 (Markna bidean)
Tel. Faxe: 943 74 29 21

*Ezkontzak
eta
erreportajeak*



mufumer
iwpri>eorleuce

TIPOGRAFIAN eta OFFSETEAN ERA GUTIETAKO INPRIMAKIAK


BID

EZKONTZA EGUNEKO JIRA BIRA GUITIAK PASATU ONDOREN ETA ONDO PASATU GAINERA, EZTEI BIDAIA GELDITZEN DA. EZKONTZA AURREKO EGUNETAKO ESTRESA ALDE BATERA UZTEKO GARAIA. HALA ERE, KONTUTAN HARTU, BAZKARIAREN ONDOREN GARESTIENA ATERATZEN DENA BIDAIA DELA ETA BIKOTE BAKOITZAK BERAREN AURREKONTUAREN ARABERA JOKATU BEHAR DUELA PRESTAKETA EGITEKO GARAIA.

	Guixieneko kostua	Gehiengo kostua	Erdi mailako kostua
Bazkario	550.000 Pta.....	3 000.000 Pia.	1 000.000 Pta.
Eztebiduia	200.000 Pfa.....	1 500.000 Pta.....	500.000 No.
Soinekou	100.000 Pta.....	800.000 Pta.....	300.000 Pta.
Trujeo	80.000 Pta.....	400.000 Pfa.....	150.000 Pia.
Bazkariko musika	40.000 Pia.....	300.000 Pto.....	80.000 Pia.
Argazkiak	80.000 Pia.....	300.000 Pla.....	120.000 Pta.
Jangelako loreak	40.000 Pta.....	250.000 Pia.....	60.000 Pta.
Eraztunak	20.000 Pfa,	200.000 Pla.....	35.000 Pta.
Elizkizuneko musika	25.000 Pta.....	200.000 Pla.....	50.000 Pta.
Bideaa	70.000 Pta.....	150.000 Pta.....	90.000 Pla.
Elizaka loreak	30.000 Pia.....	125.000 Pta.....	50.000 Pia.
Kotxea alkilatzea	44.000 Pta.....	120.000 Pla.....	60.000 Pta.
Inprimaiegiko gastuak	30.000 Pta.....	100.000 Pta.....	50.000 Pta.
Andregaiaren osagarriak	50.000 Pfa.....	100.000 Pta.....	75.000 Pta.
Gonbidaluontzul opariak	20.000 Pto.....	70.000 Pta.....	35.000 Pta.
Senargaiaren osagarriak	20.000 Pta.....	50.000 Pfa.....	30.000 Pta.
Emaztegaiaren edergintza	20.000 Pta.....	50.000 Pta.....	25.000 Pia.
Erramua	8.000 Pia.....	25.000 Pta.....	12.000 Pia.
Guztira	1.223.000 Pta.	7.740.000 Pta. . . .	2 122.000 Pta.

EZTEI BIDAIA

Gaztekeraz "luna de miel" bezala ezogutzen dugu obitura hau. Teutoiak izan ziren lehen aldiz praktikan jarri zutenak. Teutoiak ilargi bete zegoenean bakarrik ezkontzen ziren. Ezkonberriek ilargiaren ziklo oso batean, hau da, 30 egunetan, ura eta eztiarekin egindako likorea edaten zuten. Egun, izena aldatu ez hada ere, ezkontu eta ondoren hartu diren egun lasaien epealdiari deitzen zaio.



Laiisp

ASTE SANTUA

Azkar! etor zaitetz Aste Santuko erreserba egitera: Mendira, hondartzara edo zirkuitoetara. Leku desberdinetara hegaldi bereziak.

"EZTEI BIDAIAK"

Informa zaitetz gurean

SAN BARTOLOME, 15 - TEL. 943 743 544



Tenerife
Lanzarote
Mallorca
PaHs
Londres/Paris
Italia
Praga
Austria
Budapest
Holanda
Grecia
TCinez
Madeira
Cuba
Rep. Dominicana
CancUn



VIAJES

BIDAIAK

BILEFID EXPRESS

Foruen Enparantza, 3

Tel. 943 74 39 12*

Faxa: 943 74 44 24

E-maila: ane.express@inteired.es

OPARIA



*IBEROJET

2001

Zuzge bizitzako tiMala Jaukagu

Bangkok

*urrEzko hirukia
7 gau*

182.850

pfa.lik/pertsonaka

AIEW York-Playa Bavaro

*New York: 3 gau gosariarekin
Playa Bavaro: 7 gau dena bame*

305.000

pta.illripertsanako

Costa Rica

*parke naturalak
14 eguneko zirkuitoa*

293170

pta.tikjperlsonako

...eta OPARI ZORAGARRIAK!



*Portzelanazko
20 piezako ontzi jokoa
eta, gainera...*

Hiru opari hauetako bat aukeran:

Maleta jokoa

Eztei gaua

3 hilabeteko finantziazioa doan



rdi VIAJES EROSK; BIDAIK

San Bartolome, 11
Tel. 943 744 656 ELGOIBAR

A



ARGAZKIAK DIRA EZKONGAIEK BERAIEI BURUARI EGIN DIEZAIKETE OPARIRIK EDERRENA, DENBORAREN JOANEAN EZKONTZA EGUNEKO IRUDIEI BEGIRA ILUSIOZ BETETZEN BAITIRA. ARGAZKIEN BALIOA DELA-ETA EZINBESTEKOA DA ARGAZKILARI PROFESIONALA KONTRATATZEA, DENBORA PASATU OSTEAN OSPAKIZUNAREN UNERIK ONENAK GOZATZEKO.

Argazki erreportaje ona lortzeko baldintzak:

Emaztegaia: Egun horretako izarra da. Lasai egon behar du benetako modelo bat bezala agertzeko.

► **Senargaia:** Argazkiak ateratzeko lehena da eta zeremonia baino bi ordu lehenago posatzeko gertu egon behar da.

I Zeremonia: Argazkilaria oharkabean ibiliko da eliza barruan.

1 Eratzunak : Argazkilariak islatuko ditu ezkongaien aurpegiak zein eratzunen dizdira, beraiek arduratu gabe.

I Arroza: Klasikoa da eztei erreportajeetan. Argazkilariak nahi beste erretratu aterako ditu arroza botatzeko unean.

1 Lorategian: Argazkilarik tradizionalenak. Ezkonberriek une erromantikoak "lapurtzen" utziko diote argazkilaria. Lasai eta natural agertu, beti ere, argazkilaria kasu eginez.

Jatetxean: Jatorduko zein ondorengo detaile txikiak ere jaso behar du argazkilaria: loreak, gonbidatuak, musuak, dantzaldia...

Hau guztia ahantzezinezko irudietan islatuta geratuko da betiko.


Gehigarrian hainbat argibide eman dizkizuegu, orain zuen esku dago beste guztia. Eta ez ahaztu Santa Klarako mojei arrautzak eramatea, ezkontza egunean euririk egin ez dezan.



ostarku

PROFESIONALAK

**Ez itxaron gehiago!
Enkarga ezazu dagoeneko
zure ezkontzako erreportajea.**



ARGAZKI-ERREPORTAJEAK

Santa Ana, 5• Tel. 943 74 06 46

Urasandi eta San Roke auzoetan eskailera mekanikoak jartzeko proposamena aztertzen ari da Udala

BEHARRIAK IRUDITZEN AL ZARKIZU ESKAILERA MEKANIKOAK?



SAGRARIO BENGOETXEA
62 urte, etxeoandrea

Bai, gauza danetan gastatzen da eta horretan ere gastau biharko litzake. Gaztiak ez, baina nausixak eta goixan bizi dianak asko kantsatzen dia eta ondo beintxantzen jata.

ROMAN IGARTUA

62 urte, seguro agentea

Agian bai, baina nire ustez herri barruko autobusa jartzea praktikoagoa litzateke, jende nagusia horrelako aurrerapenekin beldurtu egiten baita askotan.



ROSARIO ZULAIKA
74 urte, etxeoandrea

Bai, batez ere kargiak eta igotzeko. Urasandin bizi naiz eta lehenengo aldapia, eta gero etxera sartzeko beste eskilara mordo bat pasau bihar ditxut.

ILENIA IBARLUZEA

11 urte, ikaslea

Bai, gu gaztiak gera oindiokan, baina igotzeko gaizki ibiltzen dian jende nausixak bihar dau holako zeozer.



JOSE NIKOLAS BERSALUZE


72 urte, jubilatua

Ez, oingora ohixuta gaude-eta. Gainera, bueltia eman ez jun leike, eta, guk bezala, denboria sobran eukiz gero, ez dao bolakuen biharrikan.

JOSE JAVIER MARCOS


34 urte, elektronikoa

Beharrezkoa ez dakit, baina idea ona da. Gurrildun aulkientzat edo umeen aulkixoentzat moldatutako eskailerak baino, aldapa mekanikoa jartzea litzateke egokiena.



ESKERTZA

2001eko martxoaren 16an, 57 urte zituela hil zen **JOSE LUIS EIZAGIRRE ODRIOZOLA**aren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



"Kirola eta zientzian arteko nahasketa bat da espeleologia"



■ **Zer ikusi daiteke "Izarraitzko haitzuloak" erakusketan?** Izarraitzko haitzulo haundixenei buruzko argazki eta informaztua ikusi leike, hau da, luzeraz kilometro bat baino gehixao dauken haitzuluena. Gugandik hain gertu zelako haitzuluak daozen jalcitera ematia da asmua.

■ **Espeleologiari buruz ezer entzun ez duen norbaiti nola azalduko zenioke zer den?** Hitz gutxitan, kobazuloak aztertzea da espeleologia. Batzuentzako mendira egun pasa jutia modukua da, baina serixuao ere hartu leike. Gu adibidez, lurrazpiko urak nun daozen ikusten eta hauen funtzionamentua aztertzen ibili izan gera.

■ **Noiz sortu zen Leizarpe Espeleologia Taldea?** Oin dala 18 urte sortu zan taldia. Lehenengo Mendaron eon ginan lanian, baina oin dala 6 edo 7 urte Elgoibarrera etorri ginanian sortu genduan taldia ofizialki. Oin 16 kide gaude.

■ **Espeleologia kirola al da?** Kirolan eta zientzian artian dauala esango nuke. Batetik, leizezuletan ibiltzeko kirol materiala, arnesak, mosketoiak, e.a. erabiltzia

biharrezkua da, eta bestetik, haitzulo berrixak, lur azpiko ur erresebak eta animalixan aztamak bilatu daitxekeenez, zientziara hurbiltzen da. Hauetaz gain, abentura kutsua ere badaka.

■ **Zer sentitzen da aurrez gizakiak zapaldu ez dituen lekuetan lehen aldiz ibiltzean?** Hasieran sentsazio berezixa nabaritzen da, "zer aurkituko ote dot"? galdetzen diozu zure buruari. Urteik ematen daben esperientziakin, ordia, zenbait gauzatan erreparatuz aurrerao zer aurkituko dozun imajinatzeraz ailegatzen zera.

■ **Bakarrik sartzen al zarete kobazuloetan?** Ez, 3 pertsona edo gehixao juatia komeni da. Bati zeozer pasatzen bajako, norbait laguntza eske juan ahal izateko eta hintgarrena zaurituakin geratzeko.

■ **Hemen inguruan non praktikatu daiteke?** Batez ere kareaitza dauan tokixetan. Urak sortzen ditxu haitzuluak eta karia errazao higatzen dau. Hasi Erlotik eta Mendaroraino Izarraitzko mazizo guztixan

praktikau leike espeleologia.

■ **Zenbatu al duzue zenbat kobazulo dauden Izarraitzen?** Berrehunetik gora daude, baina gehixenak oso motzak dia, 30 edo 40 bakarrik dira haundixak. Luzienak 12 km. ditxu galerietan.

• **Zein balore dute Izarraitzko kobazuloek?** Bertako lur azpiko urak dia baliotsuenak. Ur asko dao eta askotan beheraino ezin izaten gera sartu. Oin dala gitxi urpekari batzuekin hasi gera lanian. Ur azpixan eitxen dan espeleologia arriskutsuaua da. Prestakuntza eta teknika haundixa bihar dia.

• **Mundu mailan non daude lekurik onenak?** Estatu Batuetan, 500 km.tik gora ditxuan Mamut izeneko kobazulo konplexua dao. Burgosen 100 km.tik gorako luzeria daukaten kobazuloak dao,

■ Zikloturisten irteera martxoaren 25ean, domekan

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, **martxoaren 25ean**, 11. zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 9:30ean, eta honakoa izango da egingo duten ibildibea: Elgoibar, Soraluze, Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Gellao, Unzilla, Santa Ageda, Arrasate, Bergara eta Elgoibar. Guztira 64 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

Gipuzkoako Hiru THir10 Bolo Txapelketa, zapatuan, hilaren 24an, hasiko da San Migelen

Gipuzkoako XXXII. Hiru Txirlo Bolo Txapelketa zapatuan, hilaren 24an, hasiko da San Migelgo bolatokian. Aurtengo txapelketak 9 saio izango ditu eta ekainaren 9an amaituko da Lasturren. Apirilaren 21ean San Pedroko bolatokian jokatuko da txapelketako saio bat. San Migelgo saioa arratsaldeko 16:30ean hasiko da. Sariak, berriz, honakoak izango dira: Lehenengoari, 7.000 pta. Bigarrenari, 5.000 pta. Hirugarrenari, 3.000 pta. Laugarrenari, 2.000 pta eta bostgarrenarentzat, 1.000 pta.



Garitagoitia-Antxon eta Leielalbarkizea hikoteak izan dira Sallobenteko Pilota Txapelketake irabazleak

Antxonek 1. mailan eta Ibarluzeak 2. mailan pilotari onenaren saria jaso zuten



Argazkian, Garitagoitia eta Antxon, San Lorentzoko bikotea

Sallobente Elkartek Artazo pilotaria zenaren omenez antolatzen duen Pilota Txapelketaren finalak pasa den zapatuan, hilaren 17an, jokatu ziren Sallobenteko frontoian. Auzoan hildakoen aldeko meza entzun ostean, 11:30ak inguruan eman zitzaion hasiera bigarren mailako partiduari. Bertan, Xabier Loiola eta Ibarluzeak osatutako bikotea izan zen nagusi Fernando Loiola eta Iparragirrerri 22 eta 15 irabazi ostean. Partiduko pilotari onena Ibarluzeak aukeratu zuten. Lehen mailako finala, berriz, Garitagoitiak eta Antxonek irabazi zuten 22 eta 14 Beraza eta Karmel bikotearen aurka. Trabazleek Sallobenteko frontoi bereziak sekreturik ez duela argi laga zuten. Izan ere, biak baitira auzotarrak. Jokalari onenaren saria Antxon Osororentzat izan zen.

50 lagun joan ziren eskiatzera Baqueira Beretera Morkaiko Mendizale Elkartearekin

Pasa den asteburuan, hilaren 16tik 18ra bitartean 50 elgoibartar izan ziren Baqueira Bereteko eski estazioan neguko kirol hau praktikatzen. Morkaiko Mendizale Elkartek antolatu zuen irteera hau eta aipatu digutenez primeran pasa zuten. Morkaikoren hurrengo irteera "Valle de Aran"-era izango da apirilaren 12tik 16ra bitartean. Beheko argazkian pista bat jaisteko prest dauden elgoibartar batzuk ikus ditzakegu.



EMAITZAK

Futbola

Arexabaleta 1- Haundi 0 (Pref.)
Elgoibar 4- Soraluze 0 (1. erreg.)
Orioko Pedrusko 1 (1. erreg.)
Elgoibar 2 - Urola (Oho. Juh.)
S. Herrera 0- Elgoibar 3 (1. Kad.)
Elgoibar - Lengokoak 2 (Oho. inf.)
Elgoibar 4 - Antoniano 1 (Neskak)

Eskubaloia

Amen. Zarautz 20 Pagoaga Elg. 9 (Kad. nesk.)
Tecnomeca Elg. 19 Amen. Zarautz 21 (Kad. mul.)
Amen. Zarautz 13 Unceta Elg. 19 (Jub. nesk.)
Pneumax Elg. 14 - Amen. Zarautz 26 (Jub. mut.)
Aurrera Vitoria 12- IMS Elg. 23 (Senior nesk.)
Tecnifuelle Elg. 18 - Tolosa 25 (Senior mut.)
IMH Elg. 27 - Portugalete 17 (Senior mul.)

Esku pilota

Udaberri Saria

AnsolaBalzola 22 - Pueyo/Rodriguez 9 (Beloki)

Debarroko Txapelkela

AnsollEgala 15 Ubera/Armeta 22 (Ozkarbi Eigeta)

Areto futbola

Lorategieta Ger. 5 - Zur Ta Lur 6 (Euska I Liga)
Zur Ta Lur 6 - Transp. Lacunza 5(1, maila)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

larunbala, 24

15:15 Elgoibar- Orioko (1. erreg.)

18:15 Haundi - Trinkerpe (Pref.)

Igandea, 25

11:30 Elgoibar - Billabcina (1. Kad.)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunhala, 24

15:00 Pagoaga Elg. - Zuazo (Kad. nesk.)

16:15 Unceta Elg. Zuazo (Jub. nesk.)

17:30 IMS Elg. - San Adrian (Senior nesk.)

Igandea, 25

12:30 Tecnifuelle Elg. - Bergara (Senior mut.)

Areto futbola, Kiroldegian

Areto Futbola

Ostirala, 23

22:15 Zur Ta Lur - Axular (1. Maila)

Larunhata, 24

19:00 Zur Ta Lur- Altamira Bar Txubd (Euskal Liga)

Eskualdeku Txapelkela

9:15 Dinamo de Gale - Deportes Justo

10:00 Inmobiliaria San Roke - The Ravel's

10:45 Kashima Brewers- El Lute

Igandea, 25

10:00 A mi me gusta... - Gaberdiko Pub

10:45 Barrenkale-Parques yjardines

23 BARIXAKUA

22:15 ZINEA

"Algo que contar"

24 ZAPATUA

16:30 BOLO TXAPELKETA

"Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketa"
San Migelgo bolatokian

19:30-22:15 ZINEA

"Algo que contar"

25 DOMEKA

16:30 ZINEA

"La película de Tigger"

19:30-22:15 ZINEA

"Algo que contar"

26 ASTELEHENA

22:15 ZINEA

"Algo que contar"

28 EGUAZTENA

19:30 BIDEO EMANALDIA

"Periodistas el negocio de mentir"

Kultur Etxean

Antolatzailea: Ardi Beltza

20:00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Ganges, ibai sakratua"

Angel Cuerdo Galarraga

Gaztetxean

21:30 DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Yemen", Xabier Ansola

Toletxen

29 EGUENA

19:00 HITZALDIA

Gaia: "Presoen osasun egoera eta Euskal

Presoak Euskal Herrira"

Kultur Etxean

Antolatzailea: Gestorak

21:30 ZINEA

"Ogia eta Arrosak"

Antolatzaileak: Korrika Kulturala ,

Udaleko Euskara eta Kultura Saila.

Kolaboratzailea: Ongarri Zine Kluba

30 BARIXAKUA

15:00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Ganges, ibai sakratua"

Angel Cuerdo Galarraga

Kultur Etxean

Antolatzailea: Udal Euskaltegia

20:00 ENKARTELADA

"Euskal Presoak Euskal Herrira"

King-Kong-en

Antolatzailea: Gestorak

22:00 ZINE FORUM-A

"Santitos"

Kultur Etxean

Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:30 KONTZERTUA

Taldea: "Numidia" folk taldea

Herriko Antzokian

Antolatzailea: Korrika Kulturala

BATZARRAK

Elgoibarko Filatelia Elkartek urteko batzar orokorrera deitu nahi ditu bazkide guztiak. Martxoaren 25ean, domekan, izango da batzarra goizeko 11:30ean elkartearen lokalean, Nafarroa enparantza z/g. Urteko kuota ordaindu gabe duten bazkide guztiak 11.00etatik aurrera izango dute horretarako aukera. Bestalde, batzar ostean filatelia materiala zozketatuko da batzarreraz azaldu diren bazkideen artean.

LEHIAKETAK

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna dela eta, Udal Liburutegiak "VII Idazlan eta Marrazki Lehiaketa" antolatu du. Aurtengo gaia "Arratsalde hartan parkean..." izango da. Marrazki lehiaketan 4. maila bitarteko ikasle guztiak parte hartu ahal izango dute, eta idazlan lehiaketan Lehenengo Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek. Lanak gehienez orrialde batekoak izango dira eta 2.001ko apirilaren 6a baino lehen aurkeztu beharko dira Udal Liburutegian. Irabazleen izenak, berriz, apirilaren 23an, arratsaldeko 17:00etan, Liburutegiko atarian ezagutaraziko dira. Sarietarako dagokienez, liburu sorta ederrez osatutako bi sari banatuko dira kategorian bakoitzeko. Lehiaketan aurkeztutako lanak Udal Liburutegian jarriko dira ikusgai.

cr.



NOC

"Ogia eta arrosak"

Zuzendaria: Kean Loach.

Antzezleak: Pilar Padilla, Adrian Brody, Elpidia Carrillo.

Bi ahizpa mexikarrek garbiketa lanak egiten dituzte Los Angeles-ko eraikin batzuetan. Ahizpa biek aktibista sindikal estatubatuar bat ezagutuko dute eta euren kondizio sozialaren inguruan hausnartzen hasiko dira. Loachek gizarteak jasaten dituen injustizia egoerak pantailarazten ditu. Kasu honetan Amerikako dirudunek euren nahien arabera erabiltzen dituzten etorkin mexikarren egoera. Emigranteek amestutako Amerikaren bertsio ezberdina eskaintzen digu filme honek, normalean zineak erakusten ez duena.

DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Ganges, ibai sakratua" izeneko diapositiba emanaldia bi aldiz ikusteko aukera izango dugu elgoibartarrok datorren astean. Lehen aukera datorren eguaztenean (hilak 28) izango da 20:00etan, Gaztetxean. Bigarren aukera, berriz, datorren barixakuan, hilaren 30ean, Kultur Etxean. Bietan, Angel Cuervo tolosarrak Indian bizi izandako, esperientzia kontatuko du, hau da, Ganges ibaia bakar-bakarrik jaitsi zueneko, bizikletan eta piraguan. Indiako ibai sakratu hau Himalaian jaio eta 2.700 km. beherago itsasoratzen da, Bengalako badian. Ganges ibaia bizimodu eta mllaka urte dituen kultura baten ikur guztiz adierazgarria da. Ibilbidean barrena herrialdearen arima, sinismenak eta oparotasuna ageri dira. Ostiraleko saioa arratsaldeko 15:00etan hasiko da eta 45 minutuko iraupena izango du. Ondoren solasaldia izango da.

IKASTAROA

Dantza ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak dantza ikastaroa antolatu du Olaizaga kiroldegian, Marian Barragan irakasleak zuzenduta. Ikastaroa apirilaren 2an hasiko da, eta parte hartzera animatzen direnek hainbat dantza mota (vals, pasodoblea, boleroa, rock and rolla, e.a.) ikasteko aukera izango dute, astelehenetan, 20:30etik

22:00era. Izena emateko Olaizaga Kiroldegira zuzendu behar da eta epea martxoaren 31n bukatzen da.

Samba ikastaroa

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Rio de Janeiroko Samba dantza ikastaroa antolatu du. Daniela Vanessa Braga brasildarra izango da irakaslea, eta apirilaren 2an emango zaio hasiera hilabete bateko iraupena izango duen ikastaro honi. Ordutegia honako hau izango da: astelehenetan eta asteazkenetan, 17:00etatik 18:00etara, edo asteartetan eta ostegunetan 18:00etatik 19:00etara. Olaizaga Kiroldegian eman behar da izena martxoaren 30a baino lehen.

KONTZERTUAK

Udaleko Euskara eta Kultura Sailek "Euskal kantagintza" egitasmoarekin jarraituz, "Numidia" Folk talde nafarraren saioa antolatu dute martxoaren 30erako, gaueko 22:30ean Herriko Antzokian. Ernanaldi hau Korrika Kulturalaren barruan antolatu du Udalak Elgoibarko AEK Euskaltegiarekin elkarlanean. Kantaldi honetarako sarrerak aurrez eros daitezke Kultur Etxean. Goizez 7:00etatik 15:00etara. Prezioa 800 pezetakoa da eta telefonoa: 943 74 21 58. Bestalde, apirilaren 8an Baionara joateko autobusa antolatu du AEK euskaltegiak. Izena emateko Aita Agirre 3ra jo edo bestela 943 74 13 32 telefonora deitu.

"Algo que contar"

Zapatua: 19:30-22:15

Domeka: 19:30-22:15

Astelehena: 22: I 5

"La pelieula de Tigger"

Domeka: 16:30

"Offia eta arrasalf."

Eguena: 21:30

EIBAR, Unzaga

"Traffic"

Barixakua: 22:15

Zapatua: 7:00-19:30-22:15

Domeka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: I 9:30-22:15

Martitzena; *19:30-*22:15

ELBAR, Rialto

"Prueba de vida"

Barixakt: 19:30-22:15

Zapatua: 17:00- I 9:30-22:15

Domeka: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena:

"Cadena de favores"

Barixakua: 22:30

Zapatua: 22:30

Domeka: 19:30-22:15

Astelehena: *19:30

"102 Dalmatas"

Zapatua: 17:00

Domeka: 17:00-19:30

"Pan y rosas"

Eguena: 20:00

"Nailfrago"

Zapatua: 19:30-22.30

Domeka: 19:30-22:30

Astelehena: 19:30-22:30

"102 dalmatas"

Domeka: 16:30



"Algo que contar"

Zuzendaria: Don Roos.

Antzezleak: Ben Affieck, Gwyneth Paltrow, Joe Morton.

Buddy publizitate agentzia bateko exekutibo arrakastatsua da. Ekaitzaren erruz Chicagoko aireportuan ez atzera ez aurrera dago. Bertan, ezagutuko ditu Greg eta honen familia eta baita emakume eder bat ere. Azken orduan arazoak konpondu ondoren, Buddyk Greg-i lagako dio bere hegazkineko eserlekua eta bera emakumearekin oheratuko da. Hurrengo egunean hegazkinak istripua izango du. Buddy zur eta lur geratu da eta Greg-en emaztearen bila hasiko da gertatutakoa azaltzeko.



Zorionak Nahikareri, hilaren 25ean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi-bat eixekoan partez.



• Zorionak Irune, hilaren 21 ean 13 urte bete zenituelako. Zure lagunen eta bereziki, mararen eta Lauraren partez.



• Zorionak Aitaren Egunean "abuelo" **Amaho Martini**. Jose Miguel Martin Prieto eta Maiteren partez.



Zorionak Alaitz Egañari, hilaren 20an 3 urte bete zituelako. Etxekoan eta bereziki, lehengusu-lehengusina Sara, Izaskun eta Arkaitzen partez.



*Zorionak Aitaren Egunean laure Prietori. Alcba Maite, Victor eta Miguelen partez.



♦ Zorionak **losuri** eta Marisabeli. Egun politxa pasa eta oin arte bezala zoriontsuak eta alatak izan gauza guzlien gainetik, merezi duzue-eta. Bihotz-bihotzez "Txanala"-koen partez. Zorionak bi kotel



♦ Zorionak Joana Marcella Plazari, gaur, hilak 23, 5 urte bete dihelako. Asko maite duen familiaren eta bereziki, Asierren partez.



♦ Zorionak Victor Martini, hilaren 2an urteak bete zituelako eta baita Aitaren Eguna pasa berri delako ere. Emazte Maiteren eia serne Jose Miguelen partez.



♦ Zorionak losu Atxari, ren 25ean 8 urte beteko dituelako. Etxekoan eta bereziki, anaia Ekaitzen partez.



Zorionak Soraluzeko **Ainhoa Quintasi**, hilaren 21ean urteak bete zituelako. Elgoibarko Maite, Victor eta Jose Miguelen partez.



• Zorionak Isaact Hamaika urte, eith? Onda pasa eta tar-ta asko jan. Muxu handi bat familiakoan partez.



♦ Zorionak Naiarari, hilaren 2an 6 urte bete zituelako. Maite, Victor eta Jose Miguelen partez.

Agurrak

Zorionak **Elorri Irustori, hilaren** 1 6an 10 urte bete zituelako. 4. mai-lakoan partez.

♦ Zorionak Iosu, igandean, hilaren 25ean, 8 urte beteko dituzulako. Gailiziako familiaren partez muxu handi-bat. Ondo pasa!

‡ Zorionak **Mikel Galarzari, hilaren** 21ean 12 urte bete zituelako. 6. mai-lakoan partez.

♦ Zorionak **Urko eta Ametsi, 3** hila-bete bete dituztelako. Gelako batzuen partez.

Zorionak **Igor Uhharrtri**, hilaren 22an 12 urte bete zituelako. Familia-koen partez muxu handi Erd.

Zorionak **Imanol Ulibarriri**, hilaren 20an 40en muga pasa zuelako, "cuarentan". Semeoren, emaztearen eta familiakoan partez.

Farmazia okindegia

	EGUNEZ	GAUEZ
24	Etxeberria (Sonia Ana kafean)	Etxeberria
25	Etxeberria (Soniu Ana kalecm)	Etxeberria
26	Fernandez	Fernandez
27	Yudego	Yudego
28	Zabaleta	Zabaleta
29	Etxeberria (Errosario koleon)	Etxeberria
30	Escala	Escala

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ,
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA

25 Igandea Doña Mercedes

EIBARREN ERE BADUZU EZKONTZARAKO OPARIA NON AURKITU



1, 'atwpaciM

Fran Urquidi

Bidebarrieta, 27 » Tel./Faxa: 943 20 01 51

dirdac
BITXIDENDA



Toribio Etxeberria, 21 - Tel. 943 20 75 33



112RE

Toribio etxeberría, 17 • Tel. 943 29 38 68



Arragueta, 7• Tel. 943 12 71 96





JATETXEA

**Loiolako Inazio
Hiribidea, 47
20730 AZPEITIA
Tel: 943 15 16 16
Faxa: 943 15 16 18**

